



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abenduaren 11

142. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—10-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.)

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CIE-00002. Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea. Funtzionamendu-arau zehatzak (17. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

10-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Foru-lege proiektu hori 2024ko azaroaren 12ko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 25. artikuluan 2. apartatua aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko etekin garbi positiboa honela murriztuko da:

100eko 50, etxebizitza-erabilerarako higiezin errentamendutik heltzen denean. Portzentaje hori 100eko 60koa izanen da baldin eta toki-administrazioaren eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatu-riko udalerrietakoren batean kokatuta badago etxebizitza.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soilik aplikatuko da murriztapena.

Zioak: neurri honekin lortu nahi da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina horiek aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da, eta:

• Pizgarria ematen da etxebizitzak errentan jartzeko, etxebizitza gehiago jartzen dira merkatuan,

eta tratamendua hobetzen da despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuetan kokaturiko etxebizitzentzat.

• Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitzea eta tributazioa murriztea baitakar; hala, errentariak prezio txikiagoak eskaintzen ahal ditu, zerga-kostu txikiagoa baitu.

• Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.

• Alokairu-errentak azalerazteko balio du, aitorturiko errentei baino ez baitaie aplikatzen.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 36.B) artikuluan 4. apartatuaren a), b) eta c) letrak aldatzen dira.

“a) Oro har, etekinaren 100eko 30.

Baldin eta jarduera ekonomikoak toki-administrazioaren eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatu-riko udal-lerri batean badaude, 100eko 40koa izanen da.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren 100eko 70.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren 100eko 70. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiokotzat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifan 722. epigrafean ageri direnak”.

Zioak: neurri honen bidez, autonomo, nekazari eta garraiolari txikiak aurreikusitako murrizketak handitu nahi dira, zuzeneko zenbatespeneko modalitate bereziko jarduera ekonomikoaren etekin gar-

bia zehazteko, bai jardueretarako oro har –are gehiago despopulazio-arriskuan dauden udalerrietan kokatuta dauden jardueretarako–, bai nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jardueretarako eta salgaien errepide-garraioko jardueretarako. Azken finean, kontua da autonomo txikienei laguntzea, eta bereziki sektore zaurgarrietan daudenei, errenta-urritzeak pairatu dituztenei eta jarduerarekin jarraitzeko eta belaunaldi-berritzea gauzatzeko zailtasunak dituztenei.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 36. artikulua –Etekin garbia kalkulatzea zuzeneko zenbatespen erraztuan eta zuzeneko zenbatespen berezian– B) 4 apartatua aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

36. artikulua. Etekin garbia kalkulatzea zuzeneko zenbatespen erraztuan eta zuzeneko zenbatespen berezian.

4. B).3 apartatua xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positibotik honako hau kenduko da:

a) Oro har, etekinaren 100eko 10.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren 100eko 70.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren 100eko 70. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiotsat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak.

Zioa: nekazariekin eta garraiolariekin lotutako araudi fiskala egokitu behar da, Espainiako gainerako erkidegoen baldintza beretan lehiatu ahal izan daitezten merkatuan.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 59. artikulua –Likidazio-oinarri orokorraren karga– 1. puntua aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

59. artikulua. Likidazio-oinarri orokorraren karga

1. Honako eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio likidazio-oinarri orokorri:

LIKIDAZIO-OINARRIA, (EUROTAN)	KUOTA OSOA (EUROTAN)	GAINERAKO OINARRIA, (EUROTAN)	APLIKATZEKO (EHUNEKO)
		4.458	9,00
4.458	401,22	5.572	19,00
10.030	1.459,90	11.145	25,00
21.175	4.246,15	14.488	28,00
35.663	8.302,79	15.603	36,50
51.266	13.997,89	15.603	41,50
66.869	20.473,13	22.290	44,00
89.159	30.280,73	50.151	47,00
139.310	53.851,70	55.724	49,00
195.034	81.156,46	139.310	50,50
334.344	151.508,01	oinarriaren gainerakoa	52,00

Zioak: Espainiako gainerako erkidegoekin alderatuta errentarik txikienek duten zerga-presio handia zuzendu behar da.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikulua 9. apartatuaren a) letra eta a') azpiletra eta b) letraren b') azpiletraren 1. puntua aldatzen da.

“a) Gutxienerako pertsonalarengatik:

Oro har, gutxienerako pertsonalarengatik kenkaria 1.084 eurokoa izanen da urtean subjektu pasibo bakoitzeko. Zenbateko hauek gehituko zaizkio zenbateko horri:

a') 416 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 716 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 1.016 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute % 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.916 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 150 euro, errenta salbuetsiak ere kontuan hartuta zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxienerako familiarrengatik:

Honako hauek izanen dira gutxienerako familiarrengatik kenkaria:

a') Subjektu pasiboarekin bizi den eta urteko errenta –salbuetsiak kenduta– ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

1) 416 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honen c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sorrarazten badu.

2) 716 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan ezarritako errentak, gehienez ere, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen dira familia-unitate osorako.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') 1) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ez badu jasotzen ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik urtean –errenta salbuetsiak bazter utzirik–:

– 650 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 850 euro urtean, bigarrenagatik.

– 1.400 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 1.700 euro urtean, laugarrenagatik.

– 2.200 euro urtean, bosgarrenagatik eta hurrengoengatik.

Zenbateko horiek aplikatuko dira, orobat, ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein den ere, baldin eta ondorengo horrek eskubidea ematen badu hurrengo c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 644 euro urtean. Zenbateko hori urteko 1.170 eurokoa izanen da, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, nazioartekotzat jotako adopzioak badira. Adopzioetan, Erregistro Zibilean inskripzioa egiten den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da kasuan kasuko kenkaria”.

Zioak: gutxienerako pertsona eta familiarra handitzea proposatzen da, adinagatik, desgaitasunagatik eta seme-alabak eta aurreko ahaideak zaintzeagatik egoera pertsonal eta familiar bereziak dituzten subjektu pasiboen fiskalitatea hobetze aldera. Neurri horrek arindua ekarriko die, batez ere, errenta txiki eta ertainei, familiei, desgaitasuna dutenei eta hirugarren adinekoei, haien zerga-karga murriztea eta eskuragarri duten errenta areagotzea eraginen baitu; hori lagungarri izanen zaie, azken urteotan, eta inflazioaren ondorioz batez ere, pairatu duten narriadura ekonomikoari aurre egiteko. Jaiotzak sustatzeko ere baliko du.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (4/2008

Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 62. artikulua –Kuota-kenkariak– 9. a) c') apartatua aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

62. artikulua. Kuota-kenkariak

9. Kenkari pertsonal eta familiarrak.

c') 175 euro, salbuetsitako errentak ere kon-tuan hartuta zergaldian 45.000 euro baino gu-txiagoko errentak dituzten subjektu pasiboentzat.

Zioak: 45.000 eurotik beherako errenten tribu-tazioa gutxieneko pertsonaletan hobetzeko, tratu fiskal hobea izan dezaten.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginearen (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 62. artikulua –Kuota-kenkariak– 9. b) 1. apartatua aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

62. artikulua. Kuota-kenkariak.

9. Kenkari pertsonal eta familiarrak.

b') Lehena. Hogeita hamar urte baino gu-txiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu jasozten urtean, salbuetsiak bazter utzirik:

- 800 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 950 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1.100 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1.250 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.400 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.550 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek aplikatuko dira, orobat, ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein den ere, baldin eta ondorengo horrek eskubidea ematen badu hurrengo c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur

adoptatu bakoitzeko, 800 euro urtean. Zenbateko hori urteko 1.170 eurokoa izanen da, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, nazioartekotzat jotako adopzioak badira. Adopzioetan, Erregistro Zibilean inskripzioa egiten den zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da kasuan kasuko kenkaria.

Zioak: jaiotza-tasa baxua arazo bihurtu da gure gizarterako, eta areagotu egiten da laguntza fiskalen gabeziagatik. Hori dela-eta, seme-alabak izatea erabakitzen duten familien alde egiteko eta haiei laguntzeko tresna izaten ahal da PFEZa.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren Hirurogeita Bosgarren xedapen gehigarria, Etxebizitzen energia-efizientzia hobetzeko obren-gatiko kenkaria.

1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzan edo beren titulartasuneko den baina une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beste edozein etxebizitzatan berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizte aldera 2022an, 2023an, 2024an eta 2025ean eginiko obren-gatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20 kentzea; alokagai dauden etxebizitzetan kasuan, nahitaezkoa izanen da etxebizitza 2026ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzea.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu egin dela jottzeko, beharrezkoa izanen da obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagirian ageri diren berokuntza- eta hozkuntza-eskariaren adierazleen batura gutxienez ere ehuneko 7 murriztu izana obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alde-ratuta.

Obrak egin ostean emandako energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian aplikatuko da kenkaria. Edonola ere, ziurtagiri hori 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzan edo beren titulartasuneko den baina une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beste edozein etxebizitzatan energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko 2022an, 2023an,

2024an eta 2025ean eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruaren ehuneko 40 kentzea; alokagai dauden etxebizitzaren kasuan, nahitaezkoa izanen da etxebizitza 2026ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzea.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela jotzeko, ezinbestekoa izanen da energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea gutxienez ere ehuneko 30 murriztea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzea, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, «A» edo «B» energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian aplikatuko da kenkaria. Edonola ere, ziurtagiri hori 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki behar da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 7.500 eurokoa izanen da.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an, 2023an, 2024an, 2025ean eta 2026an energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipatu obregatik epe horretan ordaindutako kopuruaren ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkitako baitu obrak egin ostean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagiriaren jaso eta gutxienez ere ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean «A» edo «B» energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak izan ziren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori aplikatzeko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikitako dagoen etxebizitza-zatian eginiko obrek.

Kenkaria 2022, 2023, 2024, 2025 eta 2026ko zergaldietan aplikatuko da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruari dagokienez, baldin eta energia-efizientziaren ziurtagiria kenkaria aplikatuko den zergaldia amaitu aurretik jaulki bada. Bal-

din eta ziurtagiria obra horiengatik kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean jaulkitzen bada, ziurtagiria jaulkitzen den aldiaren aplikatuko da kenkaria. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2027ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da. Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da. Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gainditzeagatik kendu gabe geratu diren kopuru ordainduak hurrengo lau ekitaldietan kentzen ahalko dira, muga berarekin. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euroko kopurua gainditu.

4. Ez da eskubiderik egonen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak aplikatzeko, baldin eta obra jarduera ekonomiko bati atxikitako etxebizitza-parteetan, garaje-plazetan, trastelekuetan, lorategietan, parkeetan, igerileku eta kirol- instalazioetan eta antzeko beste elementu batzuetan egin bada.

Etxebizitza batean eginiko obra berdinean ez du ezein kasutan eskubiderik emanen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak aplikatzeko. Era berean, kenkari horiek ez dira aplikagarri izanen halako kasuetan non frogaturiko hobekuntza eta ordainduriko kopuruak eraikinaren osotasunean gauzaturiko ekimenen ondoriozkoak izan eta xedapen honen 3. apartatuetan jasotako kenkaria aplikatzeko denean.

1., 2. eta 3. apartatuetan jasotako kenkariaren oinarria 64.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta soilik hartuko dira kontuan obra horiek egiten dituzten pertsona edo erakundeei, bai eta aipatu ziurtagiriak ematen dituzten pertsona edo erakundeei ere, kreditu edo zordunketa txartel bidez, banku transferentziaren bidez, txeki izendunen bidez edo kreditu erakundeetako kontuetan egindako diru-sarreraren bidez ordaindutako zenbatekoak. Ezein kasutan, ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematen bitartez ordaindutako kopuruak.

Ondorio horietarako, eginiko obregatik ordaindutako kopurutzat joko dira obrak egiteko beharrezkoak direnak, barne harturik lanbide-ordainsariak, proiektu teknikoak idaztearen kostuak, obra-zuzendaritzarenak, obra edo instalazioak egitearen kostuak, ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak eta horien garapenerako beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziari buruzko kasuko ziurtagiriaren jaulkipeña ere.

Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira aintzat hartuko jatorri fosileko erregaiak darabiltzaten ekipamenduak instalatu edo ordezteko kostuak.

Jabe-erkidego batek eginiko obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osa dezakeen zenbatekoa, 3. apartatuan aipatua, suertatuko da jabe-erkidegoak ordaindutako kopuruei, aurreko paragrafoan aipatuei, partaidetza-koefizientea aplikatuz.

5. Aurreko apartatueta aipatuta datozen energia-efizientziako ziurtagiriak jaulki eta erregistratuak izan beharko dira ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez onesten baita eraikinen energia-efizientiaren ziurtagiria egiteko oinarritzko prozedura.

Kenkari horiek egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baliodun izanen dira obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagiriak, baldin eta ez bada bi urteko epea igaro jaulkipen dataren eta obra-hasieraren dataren artean.

6. Energiaren eta etxebizitzaren alorretan eskudun diren departamentuek informazioa helarazi beharko diote Nafarroako Foru Ogasunari energia-efizientziari buruzko ziurtagiri erregistratuei eta eman diren laguntzen ebazpen behin betikoei buruz, etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatik emanak izan direnean. Kasuko katastro-erreferentziako zenbakiak gehituko zaizkio informazio horri.

Tributu-alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez zehazten ahalko da zein den eman beharreko informazioa eta informatze-betebehar hori nola eta zer epetan bete behar den.

Zioak: efizientzia energetikoa dakarren birgaitzeagatik hobari fiskalak luzatu eta hedatu behar dira.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari xedapen gehigarri bat gehitzea.

Xedapen gehigarria

“2025eko ekainaren 30a baino lehen, Nafarroako Gobernuak lege-proiektu bat aurkeztuko du, zeinetan pizgarri fiskal bat ezarriko duen, laneko etekin garbietan –bai profesionalak bai enpresarialak– % 100era arteko murriztapena egiteko modua emanez; horrela, eraginkor izanen da etekin horien ez-tributatzea, zergaren sortzapendatan 30 urte baino gutxiago dituzten subjektu pasiboentzat, baldin eta urteko 30.000 euroko baino gutxiagoko errentak badituzte pizgarri fiska-

la aplikatzen den urtean. Murrizketa modu mailakatuan eta linealki txikituko da zerora arte urteko 30.000 euro eta 40.000 euro bitarteko errentak dituzten subjektu pasiboentzat.

Zioak: zuzenketa honen bidez, laneko etekin garbien –profesionalak edo enpresarialak– % 100eko murrizketa ezarri nahi da 30 urte baino gutxiago dituzten eta 30.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonentzat. Horrela, pertsona horiek ez dute PFEZik ordaindu beharrik izanen errenta horiengatik. Pizgarria aplikatzen zaien errentamugetan tributazio-jauzirik egon ez dadin, ezartzen da murrizketa modu mailakatuan txikituko dela 30.000 euro eta 40.000 euro bitarteko errentetan; hau da, 40.000 eurotik gora, murrizketa zero izanen da. Hori horrela, 30.000 eurotik 40.000 eurora bitarte, salbuespena txikituz joanen da, 40.000 eurora iritsitakoan guztiz desagertu arte.

Neurriak helburu hauek ditu:

– Errenta txiki eta ertainak dituzten gazteen errenta erabilgarria areagotzea; lanean hasi berriak dira, eta laguntza behar dute bizitzeko, independizatzeko, etxebizitza erosteko edo alokatzeko, ekintzaile izateko.

– Gazteria Nafarroan errotzea.

– Kostu mugatua duen baina oso bizkorgarria den neurri batekin.

– Errenta txiki eta ertainetara bideratua, horiek behar baitute laguntza. Progresibitatea bultzatzen duen neurria da.

– Eta modu mailakatuan txikitzen da, jauzirik egon ez dadin, 40.000 eurotik gorako errentetara arte, jotzen baita horiek ez dutela laguntza behar.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 5. artikulua 7. apartatua aldatzen da.

7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araudian definitzen denaren arabera, 400.000 euro arte gehienez ere.

Zioak: ondare txikienek zergan tributatu ez dezaten, eta salbuespena dagoen ohiko etxebizitzaren balioa eguneratzeko.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 28. artikuluan 1. apartatua aldatzen da.

"1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 1.500.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik".

Zioak: ondare txikienek zergan tributatu ez dezaten.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da.

1. Zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren batura ez da izaten ahal PFEZaren zerga-oinarriaren zenbatekoaren 100eko 60 baino gehiagokoa. Ondorio horietarako, ez da kontuan hartuko beren izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergapeko ete-

kinak sortzeko modukoak ez diren ondare-elementuei dagokien kuota-zatia. 2. Bi kuoten baturak 1. apartatuan aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da % 80 baino handiagoa izan.

Zioak: Ondarearen gaineko Zergaren gutxieneko tributazioa EAEko eta Espainiako gainerako lekuetako tributazioarekin parekatzeko, eta konfiskatoriotasun-arazoak saihesteko zerga horretan.

13. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH
BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA
CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Gehitze-zuzenketa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa bigarren artikuluari apartatu berri bat gehitzekoa:

Lehenengo Xedapen Gehigarria: Ondarearen gaineko Zergaren 2025eko eskala

2025eko zergaldian, honako eskala honetan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio zergaren likidazio-oinarriari:

LIKIDAZIO-OINARRIA GEHIENEZ (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	LIKIDAZIO-OINARRIAREN GEHIENEZ (eurotan)	APLIKATZEKO (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	1.051.024,05	2,00
11.003.784,50	157.746,50	Hortik gora	3,50

Zioak: komeni da urtebetez luzatzea fortuna handiei ezarritako Ondarearen gaineko Zergan 2023 eta 2024 ekitaldirako egindako aldaketa.

14. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 43. artikulua –Likidazio-oinarri negatiboen murriztapena– aldatzea, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

43. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboen murriztapena.

1. Aurre-aurreko hogeita hamar urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, horren % 70eko mugarekin, 42.1 artikulua aipatzen dituen murriz-

tapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio. 1.a eta 2.a.

Edozein kasutan, zergaldian konpentsatzen ahalko diren likidazio-oinarri negatiboen gehiengo zenbatekoa milioi bat eurokoa izanen da. Zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, muga hori hau izanen da: milioi bat euro bider zergaldiaren iraupenak urtearekiko duen proportzioa.

Likidazio-oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzea ez da aplikatzekoa izanen zergadunaren hartzekodunekin lortutako akordio baten ondoriozkoak diren kitei edo itxaroteei dagozkien errenten zenbatekoan. Errenta horiekin konpentsatzen diren likidazio-oinarri negatiboak ez dira kontuan hartuko aurreko lerrokadan aipatzen den milioi bat euroko zenbatekoari dagokionez.

Apartatu honetan aurreikusitako muga ez da aplikatuko entitatea desegiten den zergaldian, salbu eta desegitea VIII. tituluko VIII. kapituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzekoa zaion birmoldaketa baten ondorioa bada.

2. Ezin izanen dira konpentsatu likidazio-oinarri negatiboak ondoko inguruabarrak biltzen direnean:

a) Kapital sozial gehiena edo entitatearen emaitzetan parte hartzeko eskubide gehienak pertsona edo entitate lotu batek eskuratzea edo pertsona edo entitate lotuen multzo batek, likidazio-oinarri negatiboa dagokion zergaldia bukatu ondoren.

b) Aurreko letrak aipatutako pertsonak edo entitateek partaidetzaren ehuneko 25 baino gutxiago izatea likidazio-oinarri negatiboa dagokion zergaldia bukatzean.

c) Eskuratutako entitatea honako egoera hauekiko batean egotea:

1. Eskuratu aurreko 3 hilabeteetan jarduera ekonomikorik egin ez badu.

2. Eskurapenaren hurrengo 2 urteetan aurretiaz egindako jardueraz besteko bat edo jarduera ekonomiko gehigarriaren bat gauzatzen badu, eta haren eraginez, hurrengo urte horietan negozio zifraren zenbateko garbiak entitatearen aurreko 2 urteetako negozio zifraren batez besteko zenbatekoaren ehuneko 50 gainditzen badu. Jarduera desberdin edo gehigarri gisa hartuko da Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen hura beste talde bati dagokionean.

3. Ondare-entitate bat bada.

4. Entitateari baja egin bazaio Entitateen Aurkibidean, 71.1.b) artikuluan xedatutakoa aplikatuta. IV. Titulua 55.

3. Zerga-oinarria positiboa den lehen zergaldia hasten denetik hurrengo hogeita hamar urteetan, jarraian, amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarrietan murriztapena egiten ahal dute entitate eratu berriek sortutako likidazio-oinarri negatiboek, eta kasu horretan ez da aplikatzekoa izanen artikulua honen 1. apartatuaren lehen lerrokadan ezarritako muga zerga-oinarri positiboa sortzen den lehenengo hiru zergaldietan.

Ez dira apartatu honetan barne hartzeko modukotzat joko enpresen oinordetza- edo jarraipen-kasuak.

Zioak: zerga-oinarri negatiboen konpentsazio ekonomikoak ez luke denbora-mugarik izan behar, emaitza ekonomiko negatiboek sozietate baten berreskuratze ekonomikoan muga hori ez duten bezala; beraz, zerga-oinarri negatiboen denbora-muga kendu behar da, lurralde erkidean bezala, edo gutxienez hogeita hamar urtera luzatu, zuzenketa honetan proposatzen den eran.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

44. artikulua –Inbertsioetarako erreserba berezia– aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

44. artikulua. Inbertsioetarako erreserba berezia.

1. Zerga-oinarri positiboa ehuneko 50 murriz daiteke, baldin eta kantiitateak, ekitaldiko kontabilitateko mozkinetakoak izanik, inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira, atal honetan azaltzen diren baldintzetan eta beharkizunekin.

Portzentaje hori ehuneko 80 izanen da enpresa txiki izaera duten zergadunen kasuan.

2. Murriztapen hau zerga-oinarriaren ehuneko 45koa izanen da, gehienez ere, oinarria minoratu ondotik, aurreko artikulua aipatzen dituen likidazio-oinarri negatiboetan.

3. Atal honetan araututako onura fiskala ez zaie aplikatuko zergadunak aitortzen ez dituen errentei.

Zioak: irabaziak inbertsioak egiten dituzten enpresei lagundu behar zaie, eta are gehiago kontuan hartuta Nafarroan egiten den atzerriko inbertsioa minimo historikoetara erori dela beste erkidego batzuekin alderatuta.

16. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

51. artikulua –Karga-tasak– aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

51. artikulua. Karga-tasak.

1. Honako hauek izanen dira karga-tasa orokorrak:

- a) Ehuneko 25.
- b) Ehuneko 20, enpresa txikientzat.

Karga-tasa % 19 izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negoziozifraren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren ehuneko 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie aplikatu inoiz ondare-entitatetzat hartzen diren entitateei.

2. Honakoek ehuneko 20ko zerga-tasa ordainduko dute:

- a) Partez salbuetsiak dauden entitateak, 130. artikuluan aipatuak.
- b) Aseguru orokorretako mutuak eta Gizarte Segurantzaren gizarte aurreikuspeneko entitateak, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

c) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfidantzamendu sozietateak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legean arautzen direnak eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta daudenak.

Zioa: lehiakortasunerako garrantzitsua da Nafarroako enpresek Espainiako gainerako erki-degoen antzeko araubide fiskala izatea.

17. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 26/2026 Foru Legearen 51. artikulua 1. apartatua aldatzen da.

1. Honako hauek izanen dira karga-tasa orokorrak:

- a) Ehuneko 24.
- b) Ehuneko 19, enpresa txikientzat.

Karga-tasa % 15ekoa izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negoziozifraren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren ehuneko 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie aplikatu inoiz ondare-entitatetzat hartzen diren entitateei.

Zioak:

Helburuak:

– Enpresen fiskalitatea hobetzea, eta Nafarroa berriz erakargarria izan dadila enpresa-proiektuak ezartzeko eta atxikitzeko. Aberastasuna, inbertsio gehiago, enplegu gehiago eta diru-bilketa handiagoa ekarriko ditu horrek.

– Nafarroako enpresa-fiskalitatea EAEkoarekin eta Espainiako gainerako lekuetakoarekin parekiztea, gaur egun dagoen arrakala murrizteko, zergaren tasa nominalak parekatuz.

– Kanpotik, beste lurralde batzuen aldean, hemengo tasei buruz dagoen ikuspegi hobetzea.

18. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 26/2026 Foru Legearen 53. artikulua 2. apartatua aldatzen da.

53. artikulua. Gutxienerako tributazioa

2. Gutxienerako tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatu da:

Lehena. Ekitaldian kuotan aplikatutako hobarien batura karga-tasaz zatituta ateratzen den zenbatekoan murriztuko da likidazio-oinarria.

2. Ateratako zenbatekoan, ehuneko hauek aplikatu dira:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 15.

b) 51.1.b) artikulua 1. paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 13.

c) 51.1.b) artikuluaen bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 10.

Hirugarrena. Arestiko eragiketaren emaitzari, kasua bada, honako zenbateko hauek kenduko zaizkio:

a) Ekitaldian nazioarteko zergapetze bikoitza galarazteko aplikatutako kenkariak.

b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatiko eta parte hartzeagatiko kenkariak, 65. eta 65. bis artikuluetan arautuak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko edo berorietan parte hartzeagatiko kenkarien ehuneko 50. 51.1.b) edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, portzentaje hori % 100ekoa izanen da.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldietan aplikatu gabe gelditu direnak konputatuko dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren kenkariak zergaldian aplikatu beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 51.3 artikuluko entitateei, 51.1 artikuluan aipatzen diren karga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez.

Zioak:

Helburuak:

– Enpresen fiskalitatea hobetzea, eta lortzea Nafarroa erakargarria izan dadila berriz enpresa-proiektuak ezartzeko eta atxikitzeko. Aberastasuna, inbertsio gehiago, enplegu gehiago eta dirubilketa handiagoa ekarriko ditu horrek.

– Nafarroako enpresa-fiskalitatea EAEkoarekin eta Espainiako gainerako lekuetakoarekin parekatzea, gaur egun dagoen arrakala murrizteko, zergaren tasa nominalak parekatuz.

– Kanpotik tasei buruz dagoen pertzepzioa hobetzea beste lurralde batzuen aldean.

– Enpresa handiei aplikatzen zaien gutxieneko tasa nazioartean araututako gutxieneko zergarekin parekatzea, eta enpresa txikiei eta ertainei aplikatzen zaizkien gutxieneko tasa aurreko zuzenketa proposatutako beherapenera egokitzea.

19. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitze-zuzenketa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko hirugarren artikuluari apartatu bat txertatzekoa:

53. artikulua. Gutxieneko tributazioa.

1. Zerga 51. artikuluaen 1. eta 2. apartatuetan ezarritako karga-tasaren arabera ordaintzen duten zergadunen kasuan, kuota efektiboa ezin izanen da izan ondoko apartatuan definitzen den gutxieneko tributazioa baino txikiagoa.

2. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatu da:

Lehena. Ekitaldian kuotan aplikatutako hobarien batura karga-tasaz zatituta ateratzen den zenbatekoan murriztuko da likidazio-oinarria.

Bigarrena. Lortutako zenbatekoari ehuneko hauek aplikatuko zaizkio:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 18.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 16.

c) 51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 13.

Hirugarrena. Arestiko eragiketaren emaitzari, kasua bada, honako zenbateko hauek kenduko zaizkio:

a) Nazioarteko zergapetze bikoitza galarazte aldera ekitaldian aplikatutako kenkariak.

b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatiko eta parte hartzeagatiko kenkariak, 65. eta 65. bis artikuluetan arautuak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko edo berorietan parte hartzeagatiko kenkarien ehuneko 50. 51.1.b) edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, portzentaje hori % 100ekoa izanen da.

Apartatu honetan aurreikusitako gutxitzeen aplikazioak ez du ekarriko, inolaz ere, artikulua honetako bigarren apartatuko bigarren puntuan jasotako ehuneko gaineko hiru puntu baino gehiagoko gutxieneko tributazioaren murrizketa.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldietan aplikatu gabe gelditu direnak konputatuko dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren kenkariak zergaldian aplikatu beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko 51.3 artikuluko entitateei, 51.1 artikuluan aipatzen diren karga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez.

20. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

61. artikulua –Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik– aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

61. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

1. Ikerketa- eta garapen-jardueretan arituz gero, eskubidea izanen da kasuan kasuko zergaldian eginkizun horiengatik izandako gastuen 100eko 40ko kenkaria egiteko kuota likidoan.

Aurreko lerrokadan adierazitako kenkariak gainera, zergaldi horretan izandako gastu hauengatik 100eko 20ko kenkari gehigarria aplikatuko da:

a) Entitatearen langileria gastuak, ikerketa eta garapen jardueretara arduraldi osoarekin atxikita dauden ikertzaile kualifikatuak.

b) Espainian edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den edozein estatutan kokatutako unibertsitate, ikerketa-erakunde publiko edo zentro teknologikoekin kontratatutako ikerketa- eta garapen-proiektuei dagozkien gastuak,

bai eta Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) bete-arazpen-eragile gisa egiaztatutako enpresa-arloko I+G+b-ko unitateekin kontratatutakoak ere, Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean jasotakoak.

Zergaldian aurreko kontzeptu guztiengatik egindako gastuak pertsona edo entitate lotu bati erositako ondasun edo zerbitzuetatik badatoz, kenkariaren oinarria ez da izanen pertsona edo entitate lotuan ondasun edo zerbitzu horiek izandako kostua baizik, aski justifikatzen bada, betiere.

Zioa: ikerketa eta garapena sustatzea garrantzitsua da, are gehiago zentro jakin batzuetan egiten bada, hala nola unibertsitatean.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 63. artikulua –Babesletza-jarduerak eragindako publizitate-gastuengatik kenkaria– aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

63. artikulua. Babesletza-jarduerak eragindako publizitate-gastuengatik kenkaria.

1. Interes sozialeko gisa deklaraturako kirol- eta kultura-jardueren eta gizarte-laguntzako jardueren babesletza-kontratuek eragindako publizitate-gastuek eskubidea emanen dute kuota likidoan kenkaria aplikatzeko, zergaldian ordaindutako zenbatekoei, ondasun edo eskubideen entregei eta zergaldian egindako zerbitzuen prestazioei eskala honetako ehunekoak aplikatuta ateratzen den zenbatekoa adinakoa:

KENKARIAREN OINARRIA	APLIKATU BEHARREKO PORTZENTAJEA
30.000 euro bitarte, hori barne	% 40
Soberakina 60.000 euro bitarte, hori barne	% 45
Soberakina 60.000 eurotik gora	% 50

Interes sozialaren deklarazioa Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunek eginen dute, eta bertan tramitatuko dira kasuan kasuko espedienteak.

Zioa: kirol, kultur eta asistentzia sozialeko elkarteei laguntzeko modu bat da enpresak finantzatu ditzala sustatzea.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Gehitze-zuzenketa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko hirugarren artikuluari hamahiru bis apartatu bat txertatzekoa:

Hamahiru bis: Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2025ean hasten diren zergaldietan likidazio-oinarri negatiboak murrizteko mugak”.

Zioak: gaur egungo egoera ekonomikoa eta enpresa-mozkinak ikusita, komenigarria da beste urte batez luzatzea enpresek aurreko ekitaldietako likidazio-oinarri negatiboak aplikatzearen ondoriozko murrizketen mugak.

23. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluari atal bat gehitzeko zuzenketa. Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina onesten baita.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren (Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua) 34.1.a) artikulua (Zerga-kuota) 1., 2. eta 3. puntuak aldatzen dira,

eta aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

34. artikulua. Zerga-kuota

1. Zergaren kuota zein den zehazteko, aurreko kapituluaren xedatutakoaren arabera kalkulatuako likidazio oinarri jarraian adierazten diren kargatasetatik dagozkionak aplikatuko zaizkio, ahaide-tasun-maila eta eskurapenaren titulu juridikoa kon-tuan hartuta, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat zehaztuta.

a) Lehena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, “mortis causa” eskurapenak direnean, jaraunspen, legatu edo beste edozein oinordetza-titulu bat tarteko; halaber, biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek zenbatekoak jasotzen dituztenean, 8.c) artikuluan jasotzen den aseguratuaren heriotza gertatzen denean.

Karga-tasak:

– 1.000.000 eurorainoko likidazio-oinarria: ehuneko 0.

– Gainerako oinarria: ehuneko 0,80.

Bigarrena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, dohaintza bitartezko eskurapenak direnean edo beste edozein “inter vivos” dohainikako negozio juridiko denean, bai eta 8. artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek zenbatekoak jasotzen dituztenean.

Karga-tasak: ehuneko 0,80.

Hirugarrena. Aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko “mortis causa” eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, aseguratuaren heriotza kasuan, 8.c) artikuluan aipatzen diren moduan.

Honako tarifa honetan aipatzen diren kargatasak:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (EUROTAN)	KUOTA OSOA (EUROTAN)	GAINERAKO OINARRIA, ZENBATERAINO (EUROTAN)	APLIKATZEKO DEN TASA (EHUNEKO)
1.000.000	0,00	800.000	8,00
1.800.000	64.000,00	1.200.000	12,00
3.000.000	208.000,00	Gainerako oinarria	16,00

Zioak: ondarearen gaineko zerga hain altua duen komunitate batean, ondorengotza-zergak ahalik eta txikiena izan behar luke, zerga-bikoizketarik egon ez dadin.

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina onesten duenaren, 34.1.a) artikulua 1. eta 2. puntuak aldatzea eta 3. eta 4. puntuak indargabetzea.

Lehen. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko “mortis causa” eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8. c) artikuluan aipatzen direnak.

Karga-tasak:

– 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: ehuneko 0.

– Gainerako oinarria: ehuneko 0,80.

Bigarrena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, dohaintza bidezko edo doako eta beste edozein negozio juridikoren bidezko “inter vivos” eskurapenak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean ere, 8. artikulua d) eta e) letretan aipatzen direnak.

Karga-tasak: Ehuneko 0,8.

Zioak: zuzenketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen fiskalitatea berreskuratu nahi da Nafarroan, non, tradizioz, aurreko eta ondorengo ahaideen arteko translazioek gurasoen eta seme-alaben arteko transmisiora egokitutako tributazioa izan baitute, familiak babesteko. Gainera, gure ingurune hurbileneko —Euskal Autonomia Erkidegoa eta erkidego mugakideak— fiskalitatean egokitzen da, gertatu diren ondareen deslokalizazio-egoerak saihestuz; izan ere, horien azken emaitza izan da Nafarroarentzat diru-bilketaren galera gertatzea.

Azkenik, oinordetzen kasuan, herentzia txikienezko salbuespena ezartzen da, egungoa baino handiagoa, zerga progresiboagoa eginez.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bosgarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru-dekretua

Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 8. artikulua aldatzen da, eta aldaketak 2025eko urtarilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

8. artikulua.

1. Zerga-kuota, hurrengo artikuluan ezarritakoren kalterik gabe, likidazio-oinarriari honako tasa hauek aplikatuz aterako da.

a) % 6 ondasun higiezinaren eskualdaketen, bai eta haien gaineko ondasun-eskubideen eraketa eta lagapenetan ere, bermeko ondasun-eskubiak izan ezik.

b) Aurreko letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketak, horien eranskin banaezinak barne, honela tributatu du:

Lehen. 100eko 3ko tasa aplikatuko da, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a) Eskuratzailerak bi seme-alaba edo gehiagoz osatutako familia-unitate bateko kide izatea.

b) Eskualdaketen ondorioz etxearen jabari osoa eskuratzea, inoiz ere izan gabe lehenago usufuktuan eta jabetza soilean banaturiko jabariaren kontsolidazioaren ondorio.

c) Etxebizitza familia-unitatearen ohiko bizileku gisa erabiltzea.

d) Eskurapenaren unean, familia-unitateko ezin kide ez izatea Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako beste etxebizitza baten 100eko 25en edo gehiagoren jabe.

Tasa murriztua gehienez ere 180.304 euroa izaten ahal den zerga-oinarri bati aplikatuko zaio, eta bakarria izanen da familia-unitateko eta etxebizitzako.

Zerga-oinarri horrek kopuru hori gaintitzen badu, 100eko 5eko tasa 180.304 eurori baizik ez

zaie aplikatuko, eta hortik gorakoari, berriz, higiezinaren eskualdaketei dagokien tasa orokorra.

Zenbaki honen ondorioetarako, familia-unitatearen kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritako moduan.

Bigarrena. 100eko 2ko tasa aplikatuko da, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza denean eta despopulazio arriskuan dagoen udalerritatean kokatuta dagoenean, baldin eta eskualdaketearen ondorioz etxearen jabari osoa eskuratzen bada, eta inoiz ez lehenago usufuktuan eta jabetza soillean banaturiko jabariaren kontsolidazioaren ondorioz; toki administrazioaren eta despopulazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez ezarriko da zein diren udalerririk.

b) letra honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian definitutako moduan.

Erregelamenduz ezarriko da letra honetan ezarritako baldintzak ziurtatzeko zein agiri behar diren.

Hirugarrena. 100eko 3ko tasa aplikatuko da lehen etxebizitza erosi eta ohiko etxebizitza gisa erabiltzen denean.

Zioa: bizitegi-erabilerarako lehenengo etxebizitza erostea sustatu behar da.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Gehitze-zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren seigarren artikuluari hamabigarren apartatua gehitzekoa.

Seigarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

“Hamabi. Zazpigarren xedapen gehigarria, gehikuntza egitea, eraginak 2025ean izanen dituelarik.

Zazpigarren xedapen iragankorra. 2025ean egiten diren geroratze- edo zatikatze-eskaerei aplikatzekoak diren neurri berariazkoak.

Honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie 2025ean zehar egiten diren geroratze- edo zatikatze-eskaerei, baldin eta tributu-arloko depar-

tamentu eskudunak badauka esleituta haien diru-bilketa kudeatzeko ardura:

1. Geroratu edo zatikatu nahi den zenbatekoa ezin izanen da izan 100 euro baino txikiagoa pertsona fisikoen kasuan, eta 300 euro baino txikiagoa pertsona juridikoen edo izaera juridikorik gabeko entitateen kasuan.

2. Borondatezko epean dauden zorren kasuan, geroratze- edo zatikatze-eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta lau geroratze edo zatikatze baldin badaude kitatu gabe, salbu geroratzea eskatutako zorrak bermatzen badira, edo aurrekoak bermaturik badaude, soil-soilik Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduan (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia) 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin.

3. Berme-dispentsa:

a) Diru-bilketaren Erregelamenduan adierazitako bermeak ez dira eskatuko honako baldintza hauek betetzen dituzten geroratze edo zatikatzeetan:

1) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren gutzizko zenbatekoa ez izatea 6.000 eurotik gorakoa.

2) Epea ez dadila izan hamabi hilabetetik gorakoa.

b) Era berean, Diru-bilketaren Erregelamenduan adierazitako bermeak ez dira eskatuko honako baldintza hauek betetzen dituzten geroratze edo zatikatzeetan ere:

1) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren gutzizko zenbatekoa ez izatea 200.000 eurotik gorakoa.

2) Epea ez dadila izan hogeita lau hilabetetik gorakoa.

3) Eskabidea aurkeztearekin batera edo horren aurretik, eskatzaileak entrega dezala geroratzea eskatutako zorraren ehuneko 30.

4. 52 bis.2.b) artikuluan aipatzen diren atxikipen, konturako diru-sartze, ordainketa zatikatu edo konturako ordainketengatik zorrak geroratzen edo zatikatzen ahalko dira 3.a) apartatuan ezarritako baldintzei jarraikiz.

5. Epe exekutiboan geroratu edo zatikatu beharreko zorren artean aurrez ere epe horretan geroratutako edo zatikatutako zorrak badaude, eta horien geroratzea edo zatikatzea kitatu egin bada, betiere exijituko da zor horien ehuneko 30 ordaintzea kontura, eskaera berria egitearekin batera edo hori baino lehen.

Zenbateko horiek eskatuko dira, era berean, bermea eratzea exijitzeko modukoak diren geroratzeko edo zatikatzeetan.

Geroratzeko edo zatikatze eskaeran jasotako gainerako zorretarako, halakorik egonez gero, aurreko lehenengo xedapenetik laugarrenera bitartekoetan ezarritakoa aplikatuko da”.

Zioak: Diru-bilketaren Erregelamendua Tributuiei buruzko Foru Lege Orokorrean sartu den atzeratzeen arauketa berrira egokitzen ez den bitartean, ezin dira foru-agindu bidez garatu horiei buruzko zenbait kontu, eta, beraz, beharrezkoa da Foru Legean bertan ezartzea 2025ean eskatzen diren geroratzeei edo zatikatzeei aplikatzekoak zaizkien baldintza berariazkoak.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CIE-00002. Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea

FUNTZIONAMENDU-ARAU ZEHATZAK

2024ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2024ko azaroaren 21ean, Parlamentuaren Osoko Bilkurak erabaki zuen Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea, eta horren funtzionamendu-arau zehatzak onetsi ziren.

Hori horrela, bidezkoa da aipatu arauak argitaratzea eta talde parlamentarioek nahiz foru parlamentarien elkarteak batzorde horretan izanen dituzten ordezkariak hautatzeko epea jartzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42 eta 70. artikuluek xedatuarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratu izana.

2. Batzordearen funtzionamendu-arau zehatzak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko Batzorde Bereziaren funtzionamendu-arauak zehatzak

1. Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzordea berezia da. Xede du Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen den ebaluatzea.

Batzordearen lanak txosten batean, irizpen batean edo parlamentu-ekimenean baterako proposamenean islatuko dira, bilkuraldi bakoitzaren bukaeran behin-behineko txostenak ematea gora-behera.

2. Batzordea talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzeko kide batek osatuko du. Erabaki guztiak boto haztatuko sistemaren bidez hartuko ditu. Eledun bakoitzak, bere taldea edo elkartearen zenbat foru parlamentarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

3. Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, behin talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautatu egin dituztenean Batzordean izanen dituzten ordezkariak.

4. Talde parlamentarioek eta parlamentarien elkarteak **2024ko abenduaren 12ko 17:30ak baino lehen** jakinaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari nor diren batzordean izanen dituzten ordezkariak.

5. Eratze-bilkuran, zeina Legebiltzarreko lehendakariaren buruzagitzapean eta Mahaiko idazkarietako baten idazkaritzapean egingen baita,

batzordekideen artetik Mahai bat hautatuko da, zeina lehendakari batez, lehendakariorde batez eta idazkari batez osatuta egonen baita.

Batzordeko Mahaiko kideak aldi berean hautatuko dira, boto haztatuko sistemaren bitartez.

6. Batzordeak laguntza eskatzen ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta zilegi izanen du ego-kitzat jotzen dituen kargudun eta funtzionarioak batzordera etor daitezen eta beharrezkoak diren txostenak jaulki daitezen eskatzea Legebiltzarreko Lehendakaritzaren bitartez. Orobat eskatzen ahalko da beste pertsona eta aditu batzuk ere, arlo horretakoak, etor daitezen.

7. Batzordearen bilkurak ez dira jendaurrekoak izanen. Hala ere, hedabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala frogatuta, zilegi izanen dute batzordera joatea, bilkura horiek isilpekoak direnean izan ezik. Hedabideak joan daitezkeen bilkurak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira.

Batzordearen bilkurak isilpekoak izanen dira bere kideen gehiengo osoak hala erabakitzen duenean, hala eskatu ondoren batzordeko lehendakariak, bi talde parlamentariok gutxienez, edo batzordekideen bostenak. Izaera sekretuko bilkura bat bukatu ondoren, batzordeburuak hartu diren erabakien berri eman ahal izanen die hedabideei.

8. Batzordea agindu zaion lana bukatzean iraungiko da eta, betiere, legegintzaldia amaitzean.

9. Parlamentuko Mahaiari ahalmena ematen zaio arau hauek garatzeko, Batzordeko Mahaiak horretarako proposamena egin ondoren.

10. Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, aplikatu beharrekoa izanen da Legebiltzarreko Erregelamenduak orokorrean batzorde berezietarako xedatzen duena eta, hala-korik ezean, legegintza-batzordeetarako xedatzen duena.

